


EUSKARAREN JATORRIAREN

III. BILTZARRA



Iruña Oka, 2008ko maiatzaren 17an

Egitaraua

09:45 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa

10:00 Agurra eta aurkezpena

10:15 Josu Naberan Naberan: *Toponimiaren ekarpena aitzin euskarari*

11:30 Alfontso Martinez Lizarduikoa: *Euskara historiaurreko Europaren hizkuntza*

12:45 Bisita: Iruña Okako indusketak

14:00 Bazkaria

16:00 Patxi Alaña Arrinda: *Iruña Okako idazkunen garrantzia*

17:15 Mahai ingurua:

- Euskararen oinarrizko 12 hitzen etimologia, gaur egun dauden teorien interpretaziotik:
 - ur: lur, elur
 - iz: izen, piztu
 - in: egin, eragin
 - aba: neba, izeba
 - egu: eguzki, eguna
 - hats: hasi, hasiera
 - eusk/erd: euskera, erdera

- Hizlariak: Bittor Kapanaga, Jesus Segurola, Felix Zubiaga, Josu Naberan, Antonio Arnaiz, etab.

19:15 Komunikazioak

19:45 Amaiera

21:00 Afari-kolokioa



0. Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Josu Naberan: <i>Toponimiaren ekarpena aitzin euskarari</i>	6
3. Alfontso Martinez Lizarduikoa: <i>Euskara historiaurreko Europaren hizkuntza</i>	20
4. Patxi Alaña: <i>Iruña Okako idazkunen garrantzia</i>	37
5. Mahai ingurua: Euskararen oinarritzko 12 hitzen etimologia, gaur egun dauden teori- interpretaziotik.....	57
6. Elkarte antolatzailea.....	
7. Oharretarako orriak	89



1. Aurkezpena: Iruña Okako idazkunek, berriz ere, euskara ez dela hizkuntza isolatua izan frogatu dute



Leire Saitua

Iberiar penintsulako iparraldetik Britainia Handira

Londreseko metroan aldizkari bat banatzen dute doan, hemen bezala. Gaurko albiste nagusienetako bat hauxe da: Britainia Handiko biztanleak, jatorriz, iberiar penintsulatik datozela frogatu duen ikerketa sakona, eta horren liburua: "The Origins of the British", Stephen Oppenheimer-rena. Telebistan eta irratietan gaia ere azaldu da, berri horri garrantzia eman diotelako. Horri esker, eskoziar, britainiar eta galestar gehienek albiste hau entzun eta irakurtzeko aukera izan dute. Eraitza hauek bi uharteetako 10.000 biztanleei ADN aztertu ondoren atera dituzte. Inork ez du zalantzan jarri egindako ikerketa hau.

Albiste bera, estatu espainiarreko telebista eta irratietan ez da azaldu. Soilik egunkari gutxi batzuetan eta albiste labur gisa, ez modu sakon eta zabal batez. Gure herrietako jendeari galdetuko bagenie, %5ek baino gutxiagok honen berri entzun duela ikusiko genuke.

Albiste Britainia Handiko eta Irlandako biztanleentzat bezainbeste garrantzitsua da Iberiar penintsulako iparraldeko biztanleentzat. Baina hemen tabu gehiegi eta ez-jakintasuna nagusi ditugu.

Oxford-eko Unibertsitateak egindako ikerketa hau ez da bakarra izan honelako zerbait adierazi duena. Azken hamarkada hauetan, antzeko azterketa asko plazaratu dira eta ia denak norabide berean doaz, Theo Vennemann eta John Bengtson esaterako. Ikerketa guzti hauek ez dute eragin handirik izan unibertsitate mailan, ezta hizkuntzalaritzan ere ez, nahiz eta izugarria izan, orain arte euskara hizkuntza isolatua aldarrikatu izan duten teoria guztiak hankaz gora jartzen dituztelako. Baina, ikerketa horien garrantzia antzeman eta, gutxi batzuek eman dute honen berri gure artean: Alfontso Lizarduikoa, Antonio Arnaiz... Maila partikularrean egindako ekarpenak izan dira (ekonomikoki eta lanaren



aldetik) baina, ipuinean bezala, Erregea biluzik zegoela beste guztioi ikustarazteko balio izan dute.

Iruña Oka edo Arabako Iruña

Ikerketa genetiko hauei beste bat gehitu zaie: Iruña Okakoa. Guk horrela deitzen diogu. Ez diogu *Veleia* deitzen, erromatarrek aurretik zegoen hiriari izena aldatu nahi izan bazioten ere eta eurek agintean zeudela asko handitu bazen ere, erromatarrekin hiria eta *Veleia* izena desagertu zirelako. Guk nahiago izan dugu herritarrek, nahiz eta euskara Arabako eskualde honetan orain 200 urte inguru galdu, betidanik erabili izan duten izendapen bera erabili: *Iruña*.

Iruña izendapenak 3.000 urte baino gehiago eduki dezake, eta herriak betidanik erabili izan duen izena da, inoiz ez diolako *Veleia* deitu (ez azken 1.000 urte hauetan behintzat). Gainera, udalerraren izen ofiziala Iruña Oka da, Nafarroako beste hiriburutik bereizteko. Guk horrela izan behar dela aldarrikatu dugu, Euskararen Jatorriak egindako Iruña Okako Adierazpenean ikus daitekeen moduan. Edo Arabako Iruña ere izenda liteke eta seguruenik, esparru zabalago bateko hirihandia izan zelako.

Lehenengo eta bigarren Biltzarretan izan ditugun adituetako batzuk ez dira harritu Iruña Okako idazkunekin. Ez behintzat Azterketa Batzordean parte hartzen duten hizkuntzalarietako batzuk txunditu diren moduan. Ez dira harritu, haiek aspaldi proposatu izan dutelako euskara ez dela asko aldatu. Arkeologo guztiek frogatu duten moduan, euskarak inguruko hizkuntza guztiekin etengabeko harremana izan duela pentsatzen dute. Eta, ez hori bakarrik, batzuek zera aldarrikatzen dute, Euskal Herria zentroa izanik eta penintsulako iparralde osoa, Ebro, Akitania... barne hartuz, agian kultura sorleku eta zabaltzaile zentroa izan dela.

Horretan datza Iruña Okan aurkitutako idazkunen garrantzia, aspaldian hasitako zalantzak handitzen lagundu izana. Ikerketa taldeak prentsaurrean eman dituen datazioak egiazkoak badira, datu guztiak ezagutzera ematen dituztenean, orain arte egon den euskararen izolazionismoaren teoriaren heriotzaren data izan liteke. Horregatik dagigu aurtengo III. Biltzara herri honetan, idazkun hauen garrantzia hobeto zabaltzeko.

Hizkuntzalariek, beste arloetako profesionalekin alderatuta, aurrerapen gutxi eman dituzte hizkuntzen jatorriaren azterketetan eta hizkuntzen bilakaeretan. Gogoratu Koldo Zuazoren artikulua non esaten duen euskalkiak desberdin direla 1200.eko Gasteizko konkistaren ostean, Iruña Oka duela 1.700 urteko euskararen eta gaur egungoaren antza justifikatuz, Mitxelenaren iritziaren aurka. Agian, ordua da, hizkuntzalariek, genetistekin, arkeologoekin, eta beste hainbat arlotako profesiona-lekin estu-estu ikertzen hasteko ordua. Iruña Okako indusketetan horrelako talde bat jarri da martxan zorionez, baina, gehiago ireki beharko da, hizkuntzalaritzan batez ere.

Agian, historian agindu duten zibilizazioei (erromatarrak,...) garrantzi gutxiago eman eta gauzak beste era batera ikusten hasteko ordua heldu da. Agian konplexu politikoetatik alde egin eta hizkuntzen alderdi guztiak, aurreiritzi gabe, aurreiritzi politikorik gabe batez ere, aztertzeke orena da.

Horixe da eskatzen duguna, Ikerketa Batzordea, Iruña Okako idazkunez bestelako ikuspuntuak eduki ahal dituztenei zabaltzea. Eta, horrez gain, Iruña hiriak izan zuen zabaleraren %1 arakatu ondoren guzti hau aurkitu badute, indusketa plan handigura bat abiatzea, hiri guztia epe egoki batean (10-15 urte) aztertzeke.

Euskal Herriko hiririk handiena izan omen zen (7.000 biztanle inguru izan ei zuen orain 2.000 urte, adibidez Donostiak 5.000 biztanle izan zuen duela 200 urte) baina epe labur-laburrean desagertu zen. Agian gure historiako gako garrantzitsuenetakoa gordetzen du eta orain arte ezikusiena egin dugu. Hau da, hizkuntzalaritzaz gain, hiri honek zeresan gehiago du, historia alorrean batez ere.



Hirugarren Biltzarra

Gaur egingo dugun III. Biltzarrean, lehendabizi, Josu Naberan euskara sortzeko gure arbasoek erabili zituzten erroez arituko da, gutxien ezagutzen direnei tarte gehiago eskainiz. Berak idatzitako *Hitzen Koba* liburuan, Bittor Kapanagak orain 30 urte zabaldu zuen teorian sakondu eta ildo berri asko ireki ditu. Bere ustean, ere, euskararen iberiar, mediterraniar eta piriniar erroak daude elkartuta, baina Kapanagaren lanaren haratago doa erro gehiago proposatuz eta berauek sakonago aztertuz.

Ondoren Alfontso Martinez Lizarduikoak hizkuntzen bilakaerak ulertzeko gaur egun dauden ikerketak sakonki aztertzen ditu. Euskaldunen migrazioek, ustez, Europa osora zabaldu zuten aitzineuskara arakatuko du, disziplinarreko ikerketak erabiliz: populazioen genetika, paleohizkuntzalaritza, paleontologia, etab.

Hitzaldien ostean indusketak bisitatuko dira eta, arratsaldean, lehendabizi prentsan eta interneten Iruña Okari buruz agertutako albiste guztien laburpena eskainiko da eta, ondoren, euskararen zazpi erroei buruzko mahai ingurua izango da, aurreko biltzarretan parte hartu duten adituek bideratuta: Kapanaga, Segurola, Arnaiz, Naberan eta Ihitza. Helburua, apurka-apurka euskararen hiztegi etimologikoa osatzea da, dauden teoria eta proposamen guztiak elkartuta eta alderatuta.

Hiztegi Etimologikoari hasiera emateko, Biltzarrean honako erro eta hitzak landuko dituzte ikerleek: ur (lur, elur...), iz (izen, piztu...), in (egin, eragin...), aba (neba, izeba...), egu (eguzki, eguna...), hats (hasi, hasiera) eta eusk/erd (euskera, erdera).

Jendeak parte hartzeko aukera ere izango du, Komunikazioen atalean. Hiru hitzaldietan eta mahai inguruan ere parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Egun ona igaro dezagula, ikerketan aritzen, elkarren asmoak trukatzeko eta euskararen etorkizunari ateak zabaltzeko.

